

Akelarrea

Pozik dago UPN. Gustura PSN. Garai batean, gogor baina isilago zebiltzan. Batzuetan itxurak ere gordetzen zituzten. Orain ez. Orain Zugarramurdi-ko leizetik Nafarroako Parlamentura eraman dute sua. Hor dabilta, elkarrekin dantzan, ujuka, jauzika. Hor dabilta Aker Beltza gurtzen, Satan miresten. Suak liluratu-tzen ditu, suak indartzen ditu. Sutan da euskara, sutan dira euskararen diru apurrak. 2010eko aurrekontuekin dabilta dantzan. Etxetik gertu, D ereduari ezin ikasi eta urrunagora joatera behartuta dauden haurren-

gatik, iazko 259 euro jaso beharrean, 5 besterik ez dute jasoko guraso euskaltzaleek. Udalekuak apenas dirurik gabe, bertso eskolek jai, euskarazko literatura idazleekin jarduteko aukerarik ez dute izango ikasleek datorren ikasturtean. Euskararen irakaskuntza garatzeko programak %53ko murrizketa izango du. Eskerrak garatzeko programa den.

Akelarre moderno hauek inkisizio itxura hartzen ari diren heinean —dena politizatu behar dugunez—, sorgin eta azti guztiak bildu behar-koditu gu bestelako akelarreak egiteko. Euskaldunak. Agian, kiskali baino lehen, Nafarroako Parlamentutik sua atera eta berriro Zugarramurdira eraman beharko dugu, eta Oinez bat ez, urtean bi egin.



Jira
Xabier Lekuona

Ikaraz

Munduan zehar, denetan, gazteak hats hartzeko zirrikitu bila dabilta. Herioaz mehatxatu Irakeko gay eta lesbianak kriptoteetan biltzen dira bizirik irauteko gisan, Iraneko ikasleak aldiz karriketan hedatzen, masa beltz eta gogor, libertate poxin baten eske. Afganistanekoek NATOKo partaide armatuen zartagailu euriteak jasaten dituzte helburu estrategikoz engainatzen direnean bereziki eta Pakistaneko auzoak bala itsuen men doaz. Kongo eta Kameruneko oihane-tako pigmeoek jada film bideoak muntatzen dizkigute arboleak eta jendeek

pairatu zauriak begi bistan oldar dakizkigun.

Athenako Syntagma inguruak etorbide zabalak halaber Exarchia Ikaratsutik jaisi gazte orrolari eta bandera gorri eramaillek mukurtzen dira egunotan. Duela urte zuen poliziak Alexandrou Grigoropoulos mukizua hil zuen *sei ehun euro* deituriko belaunaldiaren oldar suntsitzalearen kariatara. Athena maite dutenek lekuak

—eta arazoak— ezagutzen dituzte:

Panepistemiou handia, Pritanea, Liburutegi Etnikoa, Ermou eta Udaletxe plaza. Sutan, Lasaia-goak irudiz abenduaren Sean Erroman *Bertusconi Dimissioni* banderolaren atzean multzoan aitzinatzen ziren nerabeak, guztiak zapia ubelez apainduak.

...Zehar, denetan.



Bira
Itxaro Borda

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Xabier Makazaga
Edizio arduraduna:
Lurdes Huizi
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Irigarri SM
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
071284059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g.
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@iragarri.net
Harpidetz saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 10/12/2009
Exemplaire: 2.011
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
071284059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdj@berria.info

ORDEKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarre kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurd: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdj@berria.info.
Nafarroa: Iratzeko Monasterio,
4, 5, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

Abortu aske eta doakoaren alde

**Ana Etxarte
Euken Barreña
Carmen García**

Alternatibako ideak

Alternatibak, azaroran zehar, *Gizonen erdituko balute abortua aske litzateke. Eskubideak ez dira negoziatu edo epeka eman behar. Abortu aske eta doakoa, orain!* izeneko kanpaina abiarazi du emakumei gehien urratzen zaien eta eskubide baten alde; euren gorputzaren gaineko erabakiak hartu ahal izatea, hain zuzen ere. Kanpaina honen bitartez PSOEk aurkezturiko Abortu Legearekiko desadostasuna adierazi nahi dugu, hiru funtsezko arrazoi direla eta: ez du emakumeen erabaki askatasuna onartzen, eta, ondorioz, euren sexu eta ugaltze eskubideen jabetza osoa galarazten die; sektore publikoaren baitan abortua bermatuko duen neurri zehatz eta argirik ez du ezartzen; eta ez du abortua zigor kodetik at uzten. Esandakoak gain, lege proposamen epel eta koldar hau estuki lotua zaie eliz hierarkiatik bideratzen diren kanpainari, biziaren aldeko izen okerrarekin ezagutzen ditugun —*aukeratze eskubidearen aurkako taldeak* izena hobeto datorkie— kanpaina horiei, zeintzuek emakume guztien duintasunaren aurka egiten duten.

Ildo honetan, eskuinak eta sozial-liberalismoak bat egiten dute emakumeek ama noiz eta nola izateko duten eskubidea ukatzeko. Beharrezkoa da, beraz, emakume-

en aurkako edozein bortxaren aurka gauden indar sozial eta politikoko gure iritzia plazaratzeko kalera atera gaitzen, mugimendu feministaren bidelagun izateko.

2008an Osasun eta Gizarte Politika Ministerioak egindako txostenaren datuen arabera, hurrengoak ondoriozta ditzakegu. Bata, Osasun Lege Organikoak arauturiko eman beharrek zerbitzuen zerrendan egon arren, abortu gehienak (%98,01) klinika pribatuatan egiten dira, eta autonomi erkidegoen artean desoreka handiak daude. Bigarrenik, haurdunaldi etete gehienak lehenengo hiru hilabeteetan izaten dira (borondatezko eteten %88,70 haurdunaldiaren lehen 12 astetan), eta horrek ez-baian jartzten du epe gabeko araudi sor lezakeen erakarpeneragina. Hirugarrena, emakumeen eskubidearen gauzatzeak osasun eta epaitegi langileen menpe dirau, haiek baitute azken hitza. Laugarrena, egungo legediak, zeinak abortua oraindik delitutzat duen, haurdunaldia eteten duten emakume zein langileei segurtasun falta ikaragarria dakarkie, Madrileko Erkidegoko Clínica Isadoran gertaturikoa ikusi besterik ez dago.

Urteak dira mugimendu feministek emakumeek euren gorputzaren, sexualitatearen eta amatasunaren jabe izateko eskubidea errespetatuko duen araudia eskatzen dutela. PSOEk, beraz, aukera paregabea zuen mugimenduaren eskari historikoei erantzun egokia emango zien lege zabala aurrera ateratzeko. Zoritxarrez, itxaropena zapuztu egin da. Bada aurrerapenik: 16 urtetik 19ra bitartean ez da gurasoen baimena beharko

abortatzeko —hau da, beste ebakuntzen pare jarri da— eta libreki haurdunaldia eteteko 14 asteko epea ezarri da —halere, neurri hori araudi aurrerakoien artean kontserbadoreenetakoa da—.

Baina nabarmen geratu dira alferrik galdutako aukerak eta gauzatu gabeko eskubideak. Epe eta baldintza sistemak hor dirau, eta horren bitartez epaitegi eta osasun langileek, agiri eta batzordeen bitartez, emakumeek haurdunaldia oztopatzeko eskubidea duten ala ez erabakitzen jarraituko dute. Emakumeen erabakiak beharrezko izaten jarraitzen du baina ez da irizpide bakarra; hala, abortua baino lehen hiru hausnarketa egun pasa behar dira orain-

dik, haurdunaldia eteteko erabakia hartzen duten emakumeek aurrez pentsatu gabe egingo bailute bezala, hobeto pentsatu beharrek auzia dela esan nahian. Gainera, ez da bermatzen osasun publikoan abortuak egitea, ez baita zehazten nola emango zaion buelta sistema publikoan egiten den %1,9 horri. Ez du, halaber, arautzen osasun langileriaren kontzientzia eragozpenaren auzia, eta, ondorioz, haurdunaldia eteteko eskubidea ez da bermatua geratzen. Izan ere, osasun zentro batzuetan eragozpena individuala izateki zentro osokoa izatera pasa da. Arrazoi ugari beraz, Legebiltzarrentzako Emakumeen Manifestuak bildu zituenak, lege proposamen hau emakumeen erabakitze eskubidearekin bat ez datorrela esateko.

Honegatik guztiagatik eskatzen du Alternatibak lege proposamenaren edukia zabaltzea. Araudi berriak emakume guztien haurdunaldia eteteko eskubidea bermatu behar duelakoan gaude, emakumeen eskubideei loturiko kontua baita. Emakumearen beraren borondateak, beraz, nahikoa beharko luke izan erabakia hartzeko. Horregatik diogu, bada, eskubideek ez dutela eperik eta ez direla negoziatu behar.

Ez dira negoziatu behar auzia arazo moral eta bizitzaren eskubide gisa aurkeztu nahi duten horiekin. Ez dira negoziatu behar Eliza Katolikoarekin, zeinak oraindik ez duen ulertu erlijioa norberaren esparru pribaturara mugaturiko kontua dela, ezta ideia eta sinismen gainetik estatuko bere herritarrei eskubideen gauzatze osoa bermatu behar diela ere, baita emakumezko herritarrei, batzuek gogoko ez izan arren. Ez da negoziatu behar iritzia publikoa euren kanpainekin nahastu duten horiekin, ezta abortua, informazioa eta proposamenak mahai gainean izanda, eztabaida dadin oztopatzen dutenekin ere. Izan ere, ziur gaudenez gizonzuek erditu beharko balute eztabaida bestelakoa litzatekeela... kalera atera gara abortu aske eta doakoaren alde!

Araudi berriak emakume guztien haurdunaldia eteteko eskubidea bermatu behar duelakoan gaude, emakumeen eskubideei loturiko kontua baita. Emakumearen beraren borondateak, beraz, nahikoa beharko luke izan erabakia hartzeko. Horregatik diogu, bada, eskubideek ez dutela eperik eta ez direla negoziatu behar